



LABen 9. Biltzar Nagusiaren harira antolatutako solasaldi zikloa Bilbora iritsi zen atzo, eta Gasteizen izango da gaur, 18:00etan, Oihaneder kultur etxean. Bea Martxuetak eta Igor Arroyok "Aldaketa sozialaren garaia, sindikalgintza borroka sozialetan" solasaldia egingo dute, atzoko hitzaldian ukitutako gai bera. Hain zuzen ere, Bilbon, bi solaskideek garbi utzi zuten LABen helburua klase sindikalgintza indartzea dela.

LABeko ordezkari Bea Martxuetak eta Igor Arroyok jarraipena eman zioten atzo [sindikatuak antolatutako solasaldi zikloari](#)

. Otsailen hasi eta maiatzaren 24era arte, askotariko gaiak landuko ditu LABek, guztiak [datozen urteetako sindikatuaren lerroan zentralitatea izango dutenak](#)

. Andoainen izan ginen solasaldi zikloari hasiera emateko, eta han [des-herria kontzeptuari buruz aritu ginen hizketan](#)

. Iruñean eta Donostian, berriz, [burujabetzari buruz hitz egin genuen](#)

otsailaren 21 eta 23an. Bada, Bilbon izan ginen atzo, sindikalgintzak borroka sozialei zein ekarpen egin ahal dien azaltzeko. Gai bera jorratuko dute gaur, Gasteizen, Martxuetak eta Arroyok eurek.

Bilboko mahai inguruari dagokionez, sindikalgintza lehen mugimendu soziala izan zela gogoratu eta gero, Martxuetak esan zuen bizitza eta kapitalaren arteko borroka hitz egin behar dugula gaur egun, lana eta kapitalaren arteko gatazkaz gain. Hala, LABek klase sindikalgintza indartzeko helburua duela berretsi zuen, baita sindikatuaren hautua nabarmendu ere: "Burujabetza oinarri duen mugimendu baten aldeko apustua da gurea, bizi eta lan baldintzak hobetuko dituen mugimendua".

Martxuetak adierazi zuen Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta "estrategikoa" dela LABentzat, eta Arroyok zehaztu zuen tresna horrek, protestarako edukiak ez ezik, proposamenak ere jasotzen dituela. Arroyok azaldu zuen aldaketa soziala behetik etorriko dela, tokian tokitik: "Burujabetza konkistatzeari buruz ari gara".

Maiatzeko Biltzar Nagusia "elkarlanerako ekintza berritzeko" momentua dela jakinarazi zuen, eta mugimendu sozialekin aliantza estrategikoak indartzeko unea ere badela berretsi zuen.

Atzoko solasaldiak jarraipena izango du gaur Gasteizen, 18:00etan, Oihaneder kultur etxean. LABek herritar guztiak gonbidatu nahi ditu, eztabaida aberasgarriagoa izan dadin.

—